




agenda

genero indarkeriari aurre
egiteko Gasteizko baliabide
eta zerbitzuen agenda



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



BELDUR BARIK, Eutsi

Gorrotoa zure begiradan mantentzen da
irtenbide bat bilatzeko ordua da,
amets gaizto hontatik esnatzen zara
goiza iritsi da ta!!!

Gure ametsa laster egi bihurtuko da,
orain arteko sufrimendua bukatzean
mundu berri bat hastear dagooooo
gogoratuuuu.....

EZ ZAITZATELA ZAPALDU!!

Begi disdiratsu negarti horiek ez itzazu itxi,
ordua iritsi da, eguna heltzear da
Berdintasuna nagusituko da egun batean
ez dago urruti, laster amaituko da...

ZURE MOMENTUA IRITSI DA!!!!

**Eskubidea duzu,
Ausartu zaitetz!
Laguntza duzu!**



agenda

UDALAREN LAGUNTZA ZERBITZUEN SAREA

Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Udaltzaingoa - Familiako indarkeria kasuetarako taldea

ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

Laguntza Psikologikoa emateko programa

Orientabide Juridikoa Emateko Zerbitzua

Abokatuen ofizioko txanda

LAGUNTZEKO BALIABIDEAK

Telefonoa: 900 840 111

Telelaguntza programa
(sakelako telefonoa-GPS)

Laguntza ekonomikoak

Itzulpen eta interpretazio zerbitzua

Gizarteratu eta laneratzean laguntzeko programak

Loremaitea

Berehalakoan hartzeko zentroa

Gizarte larrialdietarako etxebizitzak

UDALAREN LAGUNTZA
ZERBITZUEN SAREA



1 Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua

Zer da?

Larrialdi eta krisialdietan, berehalakoan hartzeko eta pertsoneri lagun egiteko –ospitalera, auzitegira, polizia-etxera, eta abarretara– zerbitzua.

Zerbitzua eskuratzeko modua


Zu zeu etor zaitezke zuzenean, edo gizarte-, polizia-, eta epaitegi-zerbitzuen bitartez.

Harremanetan jartzeko

Eguneko hogeita lau orduetan, urteko hirurehun eta hirurogeita hamabost egunetan erabil daiteke.

San Antonio kalea, 10

945 134 444



2 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Zer dira?

Gasteizko udalerrian bizi diren pertsonei doako gizarte laguntza emateko zerbitzu publikoak dira. Hauek eskaintzen dituzte:

- Edonolako gizarte arazori aurre egiteko laguntza ekonomiko, baliabide eta zerbitzu espezializatuen gaineko informazioa eta aholkua.
- Laguntza pertsonala.

Zerbitzua eskuratzeko modua

hitzordua aurretiaz eskatuta.

Harremanetan jartzeko

Astelehenetik ostiralera,
09:00etatik 14:30era.

Bizi zaren auzoko gizarte etxean.

Landatxo

Santa María 4 - 945 161 682

Aldabe

Arriagako atea 1-A- 945 161 919

Iparralde

Zuberoa plaza, 1 - 945 161 741

Arana

Aragoi kalea 7 - 945 161 735

Judimendi

Judimendi hiribidea, 26 - 945 161 739

Pilar

Konstituzio plaza, 5 - 945 161 280

Arriaga

Fco X. Landaburu, 9-A - 945 161 774

Hegoalde

Alberto Schommer, 10 - 945 161 877

Ariznavarra

Ariznabarra 19-C - 945 162 651

Lakua

Etxanobetarren zidorra, 2 - 945 162 634

Ibaiondo

Landaberde 31 - 945 161 815

Abetxuku

Kooperatiba plaza 8 - 945 162 657

3 **Policía Local 092**

Berehalako esku-hartzea
Lehentasunezko polizia-laguntza

Familiako indarkeria kasuetarako taldea

Honakoez arduratzen da talde espezializatu hori:

- Familiako indarkeria kasuen aurrean, salaketak hartzea, babes ematea eta arrisku-egoerak ikerzea.
- Aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua.
- Babes aginduak tramitatu eta kontrolatzea.
- Zerikusia duten beste zerbitzu eta sail batzuekin koordinatzea.





Harremanetan jartzeko

Premia larrienak:

- 092 telefonoan, etengabe, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

Larrialdietatik kanpo:

- 945 16 16 35 eta 646 95 85 83 telefono-zenbakietan
07:30etik 19:00etara
- Udaltzaingoaren polizia-etxean
(Agirrelanda kalea 8), beti irekita dago.
- E-postaz:
proteccion5.policia@vitoria-gasteiz.org

ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

1

2

3



1 **Tratu txarren nahiz sexu erasoen biktimei laguntza psikologikoa emateko programa**

Zer eskaintzen du?

Arreta eta laguntza psikologikoa, banakako nahiz taldekako tratamendu terapeutikoa.

Doako zerbitzua da, eta, beharrezkoa izanez gero, zuzeneko senitartekoei ere zabaltzen zaie.

Zerbitzua eskuratzeko modua

Norberak zuzenean edo Udalaren gizarte zerbitzuen bitartez, hitzordua aurretiaz eskatuta.

Harremanetan jartzeko

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU
ERAKUNDEA

Diputazio kalea 13, 945 151 015
8h30-14h30

2 Emakumeentzako Orientabide Juridikorako Zerbitzua

Zer eskaintzen du?

Aholkularitza juridikoa arazo sozial eta familia zuzenbidezko inguruko gaietan, besteak beste, banatze/dibortzio, bere kargupean dauden seme-alaben zaintza eta elikatzea, tratatu txar, jazarpen edo sexu-erasoak.

Prozesu judizialean jarraipena.

Zerbitzua eskuratzeko modua

Norberak zuzenean edo Udalaren gizarte zerbitzuen bitartez, hitzordua aurretiaz eskatuta.

Harremanetan jartzeko

GIZARTE ONGIZATERAKO

FORU ERAKUNDEA

Diputazio kalea 13, 945 151 015

8h30-14h30

3 Ofiziozko txandako abokatuak etxeko indarkeriaren biktimentzat

Zer eskaintzen du?


Berehalako, aurrez aurreko eta doako abokatu laguntza, hauek egiteko:

- Salaketa egiten eta/edo babesteko agindua eskatzen laguntzea.
- Epaitegira joan behar baduzu -dela babesteko agindua har dezaten, dela epaiketa azkarrera deitu dizutelako-, zurekin batera joan, eta laguntzeko.

Zerbitzua eskuratzeko modua

Polizia-etxean, Epaitegian edo gizarte zerbitzuetan eskatu behar da.

Telefonoa: 902 103 908



LAGUNTZEKO BALIABIDEAK

1 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko telefono-zerbitzua

Zer da?

Genero indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaritzaren baliabidea da, EAE osorako, doakoa, anonimoa eta isilpekoa, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, telefono bidezko laguntza etengabea ematen duena.

Zer eskaintzen du?

- Laguntza emozionala eta entzute aktiboa.
- Informazioa eta aholkularitza pertsonalizatua.
- Koordinazioa emakume biktimei arreta egin eta laguntzeko beste zerbitzu batzuekin.

Zerbitzua eskuratzeko modua

Telefonoa: 900 840 111

2 Genero indarkeriaren biktimentzako telelaguntza mugikorreko programa

Zer da?

Telefonia mugikorraren bidez pertsonak lokalizatzeko doako zerbitzua, indarkeria egoerak nozitzeko arriskua dagoenean.

Laguntzeko zentro bati konektatuta dago eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, eta edozein lekutan egonda ere.

Poliziak berehala esku hartzen du larrialdiko deietan.

Zerbitzua eskuratzeko modua

UDALAREN GIZARTE ZERBITZUetan tramitatzen da eskaera.

Hortxe informatuko zaituzte.

3 Laguntza ekonomikoak

Zer dira?

Laguntza ekonomiko publikoak, aldian behinekoak edo unean unekoak, oinarrizko beharrei nahiz nozitzen den indarkeria egoeraren ondoriozko beharrei erantzuteko.

Haietako bakoitza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen da.

Zerbitzua eskuratzeko modua

UDALAREN GIZARTE ZERBITZUetan tramitatzen da eskaera.

Hortxe informatuko zaituzte.



4 Itzulpen eta Interpretazio Zerbitzua

Zer dira?

Gasteizko Udalak hainbat itzulpen eta interpretazio zerbitzu ditu, arreta bermatzeko: itzultzaile eta interpretari poltsa, hizkuntzen arabera antolatua, telefono mugikorraren bidezko interpretazio zerbitzua, eta keinuhizkuntzako interpreteen zerbitzua.

Zerbitzua eskuratzeko modua

Udalaren langileen bar eskari bidez.



5 **Gizarteratu eta laneratzean laguntzeko programak**

Zer dira?

Gizarte ahuldade egoeran eta langabezian dauden pertsonei formazio integrala eta laneratze aukeradun lan-esparruetan aritzeko gaitasuna eskaintzen dituzten enplegurako prestakuntzarako programak.

Zerbitzua eskuratzeko modua

UDALAREN GIZARTE ZERBITZUetan tramitatzen da eskaera.

Hortxe informatuko zaituzte.

6 Loremaitea

Zer da?

Zure seme-alaba adingabeak tarteka zaintzeko zerbitzua, Epaitegira joan behar, salaketak ipini behar, abokatuarekin egion behar, eta antzeko kasuetarako, baldin eta haien zaintzaz arduratu daitekeen lagunik ez baduzu.

Zerbitzua eskuratzeko modua

UDALAREN GIZARTE ZERBITZUetan edo UDALZAINGOAN tramitatzen da eskaera Hortxe informatuko zaituzte.



7 Berehalakoan hartzeko zentroa

Zer da?

Berehala ostatu emateko zerbitzua da, emakumeentzat, haien seme-alabentzat edo beren kargu mendekotasun egoeran dituzten beste pertsona batzuentzat, familiaren bizilekua premiaz utzi behar dutenean.

Laguntza profesionala egonaldian zehar. Egonaldia aldi baterakoa izango da.

Zerbitzua eskuratzeko modua

UDALAREN GIZARTE LARRIALDIETARAKO ZERBITZUaren bitartez.



8

Gizarte larrialdietarako etxebizitzak

Zer dira?


Ostatua behar duten emakumeak edo familiak aldi baterako, bizitza autonomoa berreskuratu bitartean, jasotzeko etxebizitzak.

Babesa bermatzen da, eta banakako segimendua, aldian behingoa eta integrala, egiten da.

Zerbitzua eskuratzeko modua

UDALAREN GIZARTE ZERBITZUetan tramitatzen da eskaera.

Hortxe informatuko zaituzte.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



▶ Arabako Foru Aldundia
▶ Diputación Foral de Álava